

- [Kontalaritzaren historia ezagutzeko premiaz](#)

Zazpigarren artea deitu ohi zaio zinemari; bederatzigarren artea, komikigintzari; argazkigintzari egozten diote batzuek zortzigarren artea izatea, beste batzuek telebistari... Baina badira horiek baino are sailkagaitzagoak diren arte adierazpideak, hala nola ipuin kontalaritza garaikidea. Beste kultura batzuetan antzerkiaren adartzat jotzen bada ere, Euskal Herrian arte adierazpide autonomotzat hartzen da, antzerkitik apartekotzat. Baina, definizio arazoetatik harago, haren inguruko ezjakintasuna eta ezagutza falta da ipuin kontalaritza garaikidearen arazo nagusia, prestigio eta ofizialtasun faltarekin batera, hala kontalarien nola kontalaritzaren ikerlarien ustez.

Ipuin kontalaritzaren definizioa «oso kulturala» da, Leire Diaz de Gereñu EHUko Elebilab ikerketa taldeko kidearen ustez, aldatu egiten da kultura batetik bestera. «Italian, esaterako, antzerkiaren azpigenero bat da kontalaritza garaikidea. Euskal Herrian, Frantzia eta Espainian bezala —kanpoko eraginaren ondorioz neurri batean nire ustez, Hego Amerikako kulturen eraginaren ondorioz batez ere—, aparteko jardun berezi gisa hartzen da. Ez dira gauza bera antzeztea eta kontatzea, baina horrek ez du esan nahi kultura guztietan mugak beti leku berean finkatuko direnik». Leire Diaz de Gereñu (Gasteiz, 1974) euskarazko kontalaritza garaikidearen inguruko tesia egiten ari da, «kontalarien berbazko jarduna» aztertuz, «jendaurrean modu formalean nola kontatzen den deskribatzeko helburuarekin».

Maite Franko (Irun, 1971) antzerkiaren mundutik igaro zen ipuin kontalaritzara, eta kontalari gisa hasi zenean «bakarrizketa modukoak» egiten zituen, mozorroen eta objektuen laguntzaz. «Denborarekin, joan naiz gauzak uzten, eta gero eta gauza gutxiago erabiltzen ditut», azaldu du Frankok. «Objektuek eta jantziek entzuleen arreta desbideratzen zuten, eta hitz soiletik abiatuta entzuleengana iristea lortu nuenean jabetu nintzen hori askoz ere interesgarriagoa zela». Ez du gaitzesten hala ere kontalariak objektuak, jantziak edo bestelako elementuak erabiltzea. «Nork bere bidea aurkitu behar du, eta kontalari batzuei objektuek, mozorroek eta horrelakoek ikaragarri laguntzen diete».

Koldo Ameztoi ipuin kontalariak (Arrueta, Nafarroa Beherea, 1952) dio kontalaritzak «irudi batzuk» pizten dituela «entzulearen gogoan», film batek edo komiki batek bezala, baina entzulari «bere irudiak apaintzeko edo bere erara mugimenduan emateko askatasuna» emanez. «Beste arteek gehiago finkatzen dute dena». Horrez agin, beste askatasun handi bat ere aitortzen dio Ameztoik 1983az geroztik ofizio duen jardun artistikoari: «Kontalaria libre dago beste arteekin lotzeko, edozein arte motari eskua emateko: dantza, musika, pintura... Kontalariak ezagutzen badu bere lana, ipuina zer den baldin

badaki, errazago luzatzen die eskua beste arteei, eta harremanak askatasunez egiten ditu».

«Ipuin kontalaritzan, publikoa eta kontalaria zuzeneko harremanetan daude, aurrez aurre, komunikazio zuzen bat sortuz», Joxemari Carrere ipuin kontalariaren (Pasaia, Gipuzkoa, 1963) ustez. Ez dago, beraz, «laugarren paretarik», agertokiaren eta ikusleen arteko alegiazko mugarik. Definitzeko zailtasunetatik harago, ordea, «ipuin kontalaritza jardun artistiko gisa hartzea» iruditzen zaio «garrantzitsua» Carrereri.

Kontalariak, onak; egoera ez

«Oso kontalari onak dauzkagu», horretaz ez du dudarik Diaz de Gereñuk, baina Euskal Herrian kontalaritza garaikidea «oso egoera apalean» dagoela irizten dio. «Ez da asko ezagutzen, eta entzuleek ez dute oso ondo identifikatzen». Hedabideek ez dute lagundu, Carrereren ustez: «Urteak daramatzagu zer egiten dugun azaltzen, baina gure lana ez da ia-ia aipatu ere egiten. Nekeza da».

Aitormen eta ezagutza faltaren ondorioetako bat da ipuin kontalarien publiko bakartzat haurrak hartzeko joera, kontalarien zereginaren inguruko aurreiritzietan oinarritua. «Aukera eszeniko bat izan beharrean, askorentzat ipuin kontalaria haurrentzako denbora-pasa bat da», dio Carrerek. «Txotxongiloekin bezala gertatzen da», Ameztoiren ustez. «Badirudi kontalaria umeentzako ari dela beti. Baina badira denentzako emanaldiak: umeentzat; familia osoarentzat denak elkarrekin; edo soilik helduentzat, jende kultuagoarentzat».

Haur eta helduentzat lan egiteko prest izaten dira kontalariak, baina gehienetan hurrei ipuinak kontatzeko deitzen diete, eta askotan izenik ere aipatu gabe iragartzen, «ipuin kontalari bat» izango dela esanez, besterik gabe. «Helduentzako emanaldi gutxi antolatzen dira, eta, ondorioz, publiko heldua ipuin kontalarien saioretara joaten ohitzea oso zaila da», Carrereren ustez.

Datuak «kezkarriak» dira, Diaz de Gereñuk dioenez. «Kontalarien publiko nagusia euskaldun berriak eta umeak dira. Zenbat eta euskaldun zaharragoa izan, probabilitate gutxiago ipuin kontalari baten emanaldira joateko». Horrek eragin negatibo zuzena du kontalaritzaren garapenean. «Entzule gisa batez ere euskaldun berriak eta umeak dituztenez, bere osotasunean garatzen ez den praktika bat da, haien jarduna ondoen uler lezakeen entzule kualifikatua falta zaielako. Kontalaritza ez da soilik etxean prestatzen den zerbait, publikoaren aurrean egiten da, publikoa beharrezkoa du, emanaldiaren parte bat baita, eta zenbat eta entzule mota gehiago izan, kontalaritza hobeto garatuko da».

Elkartu eta antolatzen hasita daude Euskal Herriko kontalariak: Bazen Behin

festibala antolatzen dute urtero; Kontalariak elkarteak sortu, eta *Ahozko narrazioaren aldeko agiria* zabaldu zuten 2008an; kontalarien lan baldintzak hobetzearen aldeko aldarriak egin dituzte. «Baina oraindik ere kontzientziario lan handia dago egiteko», Frankoren ustez.

Konpondu beharrekoak

Aurreiritziak gaintzen joango direlako esperantza du Diaz de Gereñuk, baina ez dela erraza izango. «Frantzian eta Espainian, adibidez, kontalarien festibalak egiten dira, eta milaka ikusle biltzen dituzte. Hemen ez dago horrelakorik». Alderdi akademikotik ere «begirune handiagoa» beharko luke kontalaritzak Euskal Herrian. «Kontalariak ez dira agertzen ahozko literaturaren historian. Bertsolariak, pastoralak eta pastorgileak agertzen dira, baina kontalariak ez. Agertzen dira idatzizko bildumak egin dituztenak, baina kontalariak ez».

«Antzerki festibalak antolatzen diren bezala, edo folk gaualdiak, ez da egiten kontalarien jaialdirik», dio, ildo beretik, Ameztoik. «Kontalariok antolatuta egiten dira elkarraldi batzuk, eta ongi daude, baina merezi luke instituzioek edo elkarteek ere hartzea beren gain horrelako ekimenak. Lehen pauso batzuk ematea, ofizialtasun zerbait izateko gutxienez».

Kontalaritzaren historia ezagutzeko premiaz

Antzinako ipuin kontaketen irudi mitikoa deseraiki behar dela uste du Leire Diaz de Gereñu ikerlariak

J. L. Zabala

Ipuinak berreskuratzen egin duten lanaz gain, ipuin kontalari garaikideei «jendaurrean kontatzeko praktika» berreskuratu izana aitortu behar zaielakoan dago Leire Diaz de Gereñu. «Kontalarien aurretik, lan handia egin zen ipuinak biltzen, baina oso lan gutxi kontatzeko moduen inguruan. Oso gutxi dakigu antzinako kontaketen egoerei eta antzinako kontalariei buruz, eta kontalari garaikideek lan izugarria egin dute, ipuinak berreskuratzen ez ezik, baita kontalaritza bera berraurkitzen ere. Kontatzeko moduak ere altxorak dira».

Antzinako ipuin kontaketen irudi mitikoa deseraiki beharra dago, EHUko ikerlariaren ustez. «Garai batean aitona-amonak guztiek sutondoan ipuinak kontatzen zituztela zabaldu da. XVII. edo XVIII. mendetik hona garatu den ideia bat da hori. Baina horrek ez dauka zerikusirik benetan gertatu denarekin.

Kantatu bezala, kontatu ere edonork egiten du, baina besterik da ondo kantatzea edo ondo kontatzea. Gauza bera gertatzen da bertsoekin ere: bertsotan jende askok egiten du, baina ondo egiten dutenak ez dira hainbeste. Kontalaritza ere antzeko praktika izan da. Kontatu, jende askok kontatu du, leku askotan, baina kontalari trebeak eta onak... Ez dugu ezagutzen gure kontalarien historia».

Ikerlan batzuek erakusten dutenez, aurreko mendeetan ospakizun jakin batzuetara —txerri hilketetara, adibidez— jendaurreko kontalariak eramaten zituzten, eta batzuetan elkarren arteko lehian ere aritzen zirela dirudi. «Kontalaritza lehen zer zen jakiteak lagunduko liguke ulertzen gaur egungo kontalariak egiten dutena ez dela hain berria, tradizio baten jarraipenean kokatzen dela», Diaz de Gereñuren ustez. «Bertsolaritzak bezala, kontalaritzak ere interakzioaren eta erronkaren dimentsioa du orain, eta izan du lehen ere. Zeinek hobeto kontatu, nor liluratu, nola liluratu... Hori da kontalaritzaren motorra, atzo eta gaur».

Kontalaritzaren historia ezagutzeak egun egiten dena ez dela asmakizun bat erakutsiko lukeelakoan dago. «Tradizio bat dauka, eta garaikidea da, berritu egin da, berritu ezean hil egingo litzatekeelako, tradizio guztiak bezala».